

*Josu Baezen olerkiak*

Zume hezearen zabu dilindatua,  
iturri jarioaren joana  
oraingoa,  
gerokoa,  
zume heze dilindatua.

Atseginaren zalantza irudikatua.

Hutsarterik hartu gabeko jardunean,  
musu gorituak,  
zilbor mardulak.

Botila ardoa erdi beterik,  
euskaraz mintzatzen ziren  
iluntzeko eskilaratan.

Hiru aitona  
nere alboko mahaian.

Bidezko atsegina  
hiru aulkitan jezarria.

## HUTSA

Bat-batean  
hats gaztea urtu da  
ke arteko korapiloan.

Haragi hautsia  
gauaren sakonean.

Laneko oihan honetan  
beharturiko bizitza,  
ongizatea aitzaki.

Goizetik gauera,  
neketan neurturiko ibilerak  
heriotza ekarri du.

Negarra,  
lantua,  
udaberriko izerdi usainetan nahasiak.

Bitartean,  
kimu berriaren negar minak  
bular lehortuetan luzaroan iraungo du.

*(2010/05/11an lan istripuz hildako andre gazte bati)*

## JAKIZAK

Lurralde berdinetan mugitzen gintuan.  
Gaur, eremu horretara begiratu diat  
eta ez duk udaberriko arrats errepikatu  
horietako bat suertatu.

Haiznegarretan itsatsirik gelditu duk  
atsedenaren isiltasuna.

Udaberriko usain berriak  
lurrindu egin dituk aurtengoan,  
eta argiaren bidea zeramatek.

Hire oroitzapenaren itzalak  
keinuka jarraituko dik  
bizitzaren ahaleginetan,  
haize leunak  
garadi berdean sakabanatutako izpiritua,  
igurtziko duen bezalaxe.

Vita Nuova planetako masaila beroetan  
beti duk egunsenti.

## BEGIRADA LUZEZ

Begirada luzez  
hodeiertzean xaflatuta  
ikusten da orain ere  
nire urrutiko mendiaren soslaia.

Eta udako egunetan  
zehatz-argiago gauzatzen da.

Nirea sentitzen dut  
urrutiko mendia  
eta ametsetan,  
han sortzen den ur gardenetan  
urtzen naiz honaino iritsi arte.

Izadi eta izakiaren huntzak  
ondo funtzionatzen du.

*Josu Baez*